

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak BPGd-aren hazkundearen aurreikuspena % 2,6ra igo du

Aurreikusitakoa baino 6 hamarren gehiago da, egoera hobetu egin delako eta Foru Komunitatea beste eskualde batzuk baino abiapuntu hobean dagoelako

Miércoles, 18 de marzo de 2015

Nafarroako Gobernuak [BPGd-a](#) ([Barne Produktu Gordina](#)) [hazteko aurreikuspena](#) % 2,6ra igo du 2015. urterako, hasiera batean aurreikusitakoa baino 6 hamarren gehiago, egoera ekonomikoa hobetu dela-eta; egoera horrek Nafarroa beste eskualde batzuk baino abiapuntu hobean utzi du.



Nafarroako kontsumitzaileen konfiantza igo egin da azken hilabeteetan.

Lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilari Lourdes Goicoecheak asteazken goizeko ohiko bilkuran jakinarazi dizkio datu horiek Foru Gobernuari, bai eta Nafarroako ekonomia-aren hazkundeari buruzko beste batzuk ere.

Enpresa eta kontsumitzaileen konfiantza handitu da

Goranzko berrikuspena Gobernuak Ekonomia Zerbitzuak aztertutako zenbait adierazletan oinarritzen da. Azken bi urteotan enpresako konfiantza-adierazleen aldeko bilakaera azpimarratu behar da, bai eta kontsumitzaileen konfiantzan izandako hobekuntza garrantzitsua ere, 2007an krisia hasi aurretiko hiru hilabeteetan zegoenetik hurbil dagoena jadanik.

Konfiantzako adierazle horiek honako hau ekarri dute; bilakaera ekonomikoaren benetako hobekuntza, zenbait datu berresten duten moduan, txikizkako merkataritzako indizeak, adibidez, duela zenbait hilabeteetatik aurrerapen positiboak izanik; ibilgailuen matrikulazioa; manufaktura industria; eta sektore batzuek suspertzea, eraikuntza esaterako, 2008. urtetik bizitako atzeraldi bikoitzak gehien zigortutako sektorea, baina urte honetan suspertzen hasi dena pixkanaka. Kanpoko sektorean, Nafarroak merkataritzako superabit handienarekin amaitu zuen 2014. urtea BPGd-aren terminoetan, eta bigarrena komunitateen arteko termino absolutuetan.

Hazkundera bizkortzen ari da

Bilkuraren ondorengo prentsaurrekoan, Goicoecheak azadu duenez,

hazkundera bizkortzen ari dela ikusten hasi da. Hala, Nafarroako ekonomia % 1,5 hazi zen iazko amaieran (2013an % 1,3 egin zuen behera). Gainera, hiruhileko ikuspegi batetik, 2014ko azken txanpan aurrerapena bizitzen hasi zela ikusi zen, urte arteko % 2,1eraino.

Lehendakariordeak adierazi duenez, Nafarroako ekonomiaren dinamika on horrek zenbait erakunderen aurreikuspen baikorren babesa jaso du. Hala, Hispalik-en aurreikuspenek Nafarroako Balio Erantsi Gordina % 2,2 igoko dela diote 2015ean, eta % 2,5 2016an, hots, biurteko honetan gehien haziko zen Espainiako hirugarren eskualdea izango zen. Bestalde, BBVAko Azterketa Zerbitzuak hirugarren postu horretan bertan uzten du Foru Komunitatea, baina hazkunderako erritmo biziagoekin egiten du: 2015erako aurreikuspena % 3ra igotzen baitu eta 2016rako, % 2,8ra.

Bestalde, Erantzukizun Fiskaleko Aginpide Independentek (AIReF), aurrekontu-egonkortasuna betetzeko lurralde-administrazioen hazkunderako aurreikuspenak babesteaz arduratzen denak, "zuhurtzat" jo zuen Nafarroaren aurreikuspena, eta % 2,6ra igo zuen 2015ean. Goicoecheak Nafarroako Gobernuak egindako aurreikuspen berria errealista eta zuhurra dela esan du, kanpoko txostenetan eta Gobernuko Ekonomia Zerbitzuaren datuetan oinarrituz.

Susperraldirako leku hobean

Goicoechea lehendakariordeak azpimarratu duenez, beste autonomia erkidego batzuen aldean Nafarroan krisiak izan duen eragin txikiagoak leku hobean uzten du orain susperraldi bizkorragoa izan dezan. Hala, gogoratu du, [Fitch kalifikazio-agentziak Nafarroa krisiak gutxien eragindako komunitatea](#) dela esaten zuela.

Hark adierazi duenez, Nafarroako BPGd erreala bigarren atzeraldia-aren ondorioetatik erreperatu da ia zeharo. herrialde guztiaren gainetik. Susperraldi hori lan-merkatuan nabaritu da, eta Nafarroak bere diferentziala handitu du Espainiarekin alderatuz. Hala, Nafarroa gaur egun herrialdeko langabezia-tasa txikiena duen komunitatea da, Estatuko batez bestekoa baino 9 puntu gutxiago; 2011ko bigarren hiruhilekoan, Espainiarekiko aldea 8 puntu baino txikiagoa zen. Goicoecheak, nolana ere, azpimarratu du % 14ko langabezia-tasa arazo garrantzitsua izaten jarraitzen duela, eta guztiok lan eta ahalegin handia egin beharko dugula pixkanaka murrizten joan dadin.

Goicoecheak nabarmendu nahi izan du datu on horiek Nafarroako herritarrei eta enpresei esker sortu direla bereziki; haiek guztiek egindako lanari esker, adibidez, Nafarroa 2014an aurreko hiru urteetan baino enpresa gehiago zituen autonomia erkidego bakarra izan da.

Susperraldia finkatzeko pizgarriak

Lehendakariordeak azaldu duenez, ekonomiaren hobekuntza horrekin batera, Foru Gobernuak ahalegin handia egin du kontu publikoak egonkortzeko; horri esker, susperraldi ekonomikoari laguntzeko eta hazkunde-eredu iraunkorra izateko pizgarriak sartu ahal izan dira.

Testuinguru horren barnean dago [jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzeko akordioa](#), 545 milioi eurokoa dena 2015-2017 hirurtekorako. Hamabi jarduera-alorretan aplikatuko da eta haiek ekintzailtza, modernizazio, lehiakortasun eta enpleguaren ardatz baten inguruan oinarrituko dira. 2015erako adostutako aurrekontuaren % 90 abian da jadanik.